

ERDI-MOKO .
EUSKAL-IZEN HMZKERA

Kukulla'ko larrukin edo pergaminua —«el batua» zaleek Hizkiaren aide ain maiz aipatu oi duten, larrukina—, milla eta ogeitabosgarren urtekoa da, amaikagarren mendekoa beraz. Aztertu ditzegun gaur 1025'garren urte orren inguruko beste idazki batzuek.

—Lenegoa, 1085'koa. Armentia'ko gotzaiak izenpetua: «Au da nik, Fortunio'k, nere merezimenduengaitik ez baifia Jainkoaren errukiari esker, Araba'ko gotzai naizen onek, zuri, Aitz'eko esaten zaion (quod nuncupatur de Poena) Donibane' ren Lekaidetxeko Abata zeran orri egiten dizudan emaitza». (Aipatutako liburuaren 225 orrialdean).

Auek dira idazki ortan agertzen zaizkigun erri-izenak:

HUHULLA.

QUOSQUORRITA.

OLGA.

QUOSQUORRITA (bigarren aldiz).

MONTACHA.

ARMENTEGI.

POENNA (Lekaidetxearen izena).

Latinez idatzia da larrukin au, eta latera txukunean idatzia, gaifiera.

Ala ere baditu idazkeran utsune batzuek.

—Bigarrena. 1085'garren urtekoa au ere. Piedrola'ko senar-emazte batzuek Iratxe'ko Lekaidetxeari Santa Pia'ko eleiza emateko idatzia.

Ikus, idazki ortan agertzen diran errien izenak:

ARNETO (Valle de Arneto).

IRACHI (Sanctae Mariae de Irachi).

MARANNON.

NAXERA.

PIEDROLA.

PUNICASTRO.

SANCTA PIA (Monasterium nostrum nomine Sancta Pia).

PORTELLA.

CABERO.

Idazki au aipatutako liburuaren 227'garren orrian dago.

—Irugarren eta laugarren idazkiak, batera aurkeztuko ditugu, azalketa au laburtzearren. 1085'garren eta 1106'garren urtekoak dira. Esku-artean darabilkigun liburuaren 230 eta 75 orrietan daude.

Ona idazki oietan aurkitu dezazkezun erri-izenak:

ARRIATU

OROLI

IRAZA

ELCHEA

OZETA

AIRANGUI

AVITONA

ANTEPARDO

SALVATEGUI

LUENGO (agian abizena
izanen da)

ALAYZA

ARMENTIA

BERROZTEGUITA

SAN MEJANO

ZUAZO

LEGARDA

HAREIZZELHETA

ESTIVALEZ.

ABEGOKO

DIVINA

Aztertu dezagun orain izen auen. idazkera:

H'z datorzkigun izenak auetxek ditugu:

HUHULLA eta HAREIZZELHETA.

—Ba dirudi bigarren izeneko lenengo H'a izan ezik, beste biak J'ren antzeko sonua ez baiio gaurko beste izki edo letra batzuen sonua adierazteko erabilli zituztela larruki edo pergamino auen idazleek: K'ren eta LL'ren sonuak. Ona zergaitik:

—HUHULLA. «Araba'ko gure elizbarrutian», «in episcopatu nostri Alavensi» daudela dio Armentiko gotzaiak HUHULLA au eta QUOSQUORRITA. Gero, «in Vizcaya» daudenak aipatzen asten da. Bizkai'ko auk ere bere elizbarrutian zeuden, baina ez Araba'n: «in Alavensi».

Gaurko Kuzkurrita, Errioxa'n dago. Errioxa'n dago gaurko Kogolla edo Kukulla ere. Beraz, HUHULLA'ren H oiekin idazleak K adierazi nai digu: HUHULLA = KUKULLA.

(Aitor dezagun, ala ere, Kukulla'ko larrutiak dionez, Araba'n, Barrundi-aldean UHULLA(UKULLA?) bat bazala, gaur bertan Bizkain, Etxebarri'n, KUKULLAGA deritzan auzo bat ere badan bezela, baina gure HUHULLA onek Errioxa'ko Kukulla dala dirudi, Errioxa'n bait dago bere albo-alboan aipatzen dan Kuzkurrita).

Zergaitik ez duan Kukulla idazteko, Quosquorrita idazterakoan bezela, gure idazleak «QU» erabilli?

Lendabizi, «U» orren atzetik, Kukulla'n, abotsizki edo bokalik ez zualako Quosquorrita'n lez; QUULLA idazteak ez zuan zentzurik ez itxurarik.

Eta, bigarren, orduango idazkeran izkiak edozein eran dantzatzen ziralako: QU, K, C, CH. Ikus: OPAUQUA, ARCAYA, ABEGOKO, MARCHINEZ, eta... jMARQUINEZ! idazki be-rean.

—HAREIZZELHETA. Bi H'kin. Asieran bata, erdian, «L» baten ostean, bigarrena. HAREIZZELHETA. Bigarren «H» ori «L» adierazteko erabilli zuan noski idazleak. Gaur-egun ere orrela adierazten dute portugaldarrek «LL»aren abotsa:

«LL»ren bitartez. Orrela jokatu zuan gure idazleak ere, bestela, itzen buztaneka «LETA» ori idazteko ez bait zuten erdiarotarrek «L» ostean «H»rik ipintzen. Bedi eredu azkeneko idazlanean aipatzen nuan HARECHAVALETA, Kukulla'ko larrukiak, neri arrazoi emateko egin ba'lu lez, HARIZABALLETA biurtzen duana. «E»ren ordezkari «I»», «V»ren tokian «B», eta —gure arira zuzen zuzen datorren aldaketa—, «LH»ren ordezkari «LL».

—HAREIZZELETA'ren aurreneko H'a berriz, lumalari zaar aren naikeri utsa besterik ez da, lengoan ikusi genuenez, H'rik gabe agertzen bait ziran ARANGUIZ eta ARAMA. Ziurki, «ARA» eta «ERA», esanaiez, ez dira berdinak, baifia fonetika edo ots-auzian lengusuak dira biak. Orregaitik, bazekiten antzinako idazkari aiek «ARA» H'z aurkeztu. Ala, gaur Araba'n ezereztua dagoan errixka baten izena: HARARIHIN. Eta baita «H» ori «R» ostean ipintzen ere: ARHAHIA. (Bigarren «H» oien zergaitia Kukulla'ko larrukia aztertzean azalduko dugu, larruki artakoak bait dira bi itz pitxi oiek).

—Bi «ZZ» ere ba daramaz gure izen miragarri onak: Harizzelheteta, baifia bi «ZZ» oiek «TZ» adierazi nai digutela dirudi erdi-aroko larrukietan. Gaur bertantxe italieraz «ZZ», «TZ»ren ikurra dira.

Beraz, ogen egiteko bildur aundirik gabe, esan genezake euskeraz erri aren izena AREITZELLETA zala.

—QUOSQUORRITA. Erri au Errioxa'ko Kuzkurrita dala esan dut, baifia ez ziurtasun osoz; beste QUOSQUORRITA bat ere izendatzen bait du gure idazki onak, bigarren au Bizkai'n dagoala esanaz. Bai ote zan Bizkai'n Kuzkurrita'rik, ala bi QUOSQUORRITA'k bat ote dira? Bai bait dirudi bigarrena idazlearen «lapsus» edo utsegite bat izan zala, esaera berdinean aipatzen bait ditu biak. Ona: «...Ecclesiam quae dicitur Quosquorrita, et in Vizcaya qui nuncupatur Olaga Ecclesiam, quae dicitur Quosquorrita, et in Vizcaya Ecclesiam quae dicitur Sancta Maria de Montacha». (Montacha, Mundaka da).

Itxuraz «quae dicitur Quosquorrita* ori, alperrik dago bi bider idatzia; orrela «et in Vizcaya» eta «et in Vizcaya» bi-

koitz ortako bi «Vizcaya»k Bizkai bat diran bezela, KUZKURRITA bat dira bi Quosquorrita aiek ere.

Begira nola ibilli bear izaten dan larruki zarrekin. Dotore gabiltz aien idazkera gaurko Euskeraren eredutzat artu naiean asten ba'gera!

—POENA. «Aitz» esan nai du; gaztelarazko «Pena». Yon Done Batailariaren goratzarrerako Jaka'ren inguruetan eraikitako Lekaidetxe ospetsuaren izena. Batzuetan POENA, beste batzuetan PENNA idazten du gure lumalariak. Bi NN oiek N irakurtzen_ zirala gogoan artzen ba'duzu, or daukazu gaztele-razko PENA.

Urte bereko beste larruki batek «PENNA» edo «AITZ» aren izena OROLI zala aitortzen digu: «...in monte qui appellatur OROLI». Badaiteke ordea izen ori «jenitibo-eran» idatzirik agertzea-ta, agian mendiaren izena OROLLA izanen zan. «Orol-li»k ez du euskal usairik; bai ordea «Orolla»k (Oraintxe ere Naparroa'n Araiz'ko Arribe'ko auzo batek ORELLA du izena). Gaur bertan Aragoi'ko iparraldea euskal lur-izenez beterik dago, eta geiago zegoan noski aro zaar artan; areago oraindik: orduan Aragoiko lur aietan euskeraz mintzatzen zan erria.

—«AR», H'rik gabe agertzen zaigu beti larruki auetan: ARMENTEGI, ARNETO (oraingo Arnedo), ARRIATU, ARMENTIA. H'rik gabe ZUAZO ere; azkenoko nere idazlanean aztertzen nituan idazkietan bein H'kin eta beste bein gabe agertzen zitzaigun erri au,

—«SALVATEGUI» non dagoan jakitea gauza zailla da. Ez da SALVATIERRA, erri bikain oni AGURAIN deitzen bait zaio beti garai artako idazkietan. Salvategui, Salbatoretegi ote da? Araba'ko Salvatierrak SALBATORE'rekin zer ikusirik ote duaren susmo-kezkatzua jaurti bait zigun bein Lekuona'tar Imanol maixuak! (Oar zazu, iraisean, SALVATEGUI «GU»kin dagoala idatzia eta ARMENTEGI «G» utsarekin).

—ARMENTEGI, batean, ARMENTIA, bestean, irakurtzen degu oraingo ontan. Euskalerriko gotzaitegi izandako uria. Etimologilariak, ARMENTIA, ARMENDIA dala diote. «Armen-degi»k apika beste bide batera bultzatzen gaituan: ARMEN-

DEGI=ARMENDIEGI? Dana dala, azkeneko «A»rik gabe. Orrela agertzen bait dira beti, adibidez «URI»z edo «BARRI»z amaitzen diran erri ugarien izen guztiak: ULLIBARRI, OBEKURI e-abk). Azkeneko «A» ori ez da izenaren zati, atzizki edo sufijo bat baizik: «nominatiboari» dagokion atzizkia. Latifiak eraginda idazten zituzten euskal izenak «A»z amaiturik, latiiaren aimbat et ainbat itzek «A»z egiten bait dute nominatiboa. ARMENDI, beraz; eta Armenti. Ez Armentia edo Armentia. Dosti, eta ez Donostia.

Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetxeko larrukiak ere ARMENTEI idazten du elisia edo izki-jatea eginaz. Baina, azken-A'rik gabe.

Armentegi, Armentei biurtze orrek ba du bere garrantzia. Bi arzoirengaitik: Aide batetik elisia egiteko oitura ori Euskalerrian oitura zarra dala adierazten digulako. Eta besetik, nere betiko kezka izan dan bezela, Kukulla'ko larruki «el batua» zaleen maite-kuttun ua idatzi zuana, euskalduna ez zala jakiiarazten digulako. Armentei entzun zuan, eta entzun bezela, Armentei idatzi zuan. Ez bait zekian, izatez, Armentegi Armentegi zala.

Errien izenen idazkera bezain zoroki dabil bi larruki auetan gizakumeen izenena ere. Batek «VEILAZ» idazten du «V»rekin eta «I»kin. Besteak «BEYLA» «B»kin eta «Y»rekin; eta «BELASIO»!

Bigarren larruki onek orduango agintarien izenak agertzen dizkigu: «Sancio Ranimiriz in Pampilone», eta «ultra Iberum», «Ebro'z aruntz», «Aldefonso Ferdinandiz in omni Patria». «A.berri guzian»! Eskierki, ez zan Euskalduna, orduao Euskalerri zan Kukulla'n larruki au idatzi zuan lumalaria ere.

Arab a, Bizkai eta Gipuzkoa, alkarturik, jaun baten esanera zeudela esaten digu, eta Jaun ori ez zala Naparroa'ko errege Santxo, konte bat baizik: «Comes Lupus dominans Alava, et Vizcaya, et Ipuzcoa».

Euskalerrian, Euskalerriko Lege Zarraren barne-gogoaren

aurka, Atzerriko jendeen erara, jauntxoak sortzen asiak ziran ordurako.

Bedi, gaurkoz, naikoa. Datorren zenbakian, Bizkaiko errien izenak dakarzkien larruki batzuek aztertuko ditugu. Ordu-rarte, Agur.

Latiegi'tar Bixente

JORAKO, **SUTEGIAN,**
BAI ERABILTZE **LUZEAN,**
BAI AZKAR-AZKARREKOAN...
(Estampados-Forjados delakoan)

REMI6I0 ETXEBERR1A

Txonta, 12 — EBB A